



Nola egin programazio didaktiko praktikoa lehen hezkuntzan eta haur-hezkuntzan: planak, proiektuak eta protokoloak



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea eskatu dugu unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntza gisa ere baliozkotzea eskatu da.

Mar. 12 - Api. 09 2025

Kod. @3-25

Mod.:
Online

Edizioa
2025

Jarduera mota
Luzapen luzeko online ikastaroa

Data
Mar. 12 - Api. 09 2025

Hizkuntzak
Euskara Gaztelera

Balio akademikoa
30 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Ikastaro honen **helburua programazio didaktikoa antolatzea** eta lantzea da. Ikastaroaren **ezaugarri nagusia** gela bakoitzaren errealitatera **egokitze** aukera da. Egitura, analisia, behaketa, metodologia desberdinak, koordinazioak, ebaluazioa... landuko dira **hezkuntza inklusibo** eta **kalitatezkoaren** ildoetara jarraituz.

Beraz, aniztasuna, **LOMLOEK** dakartzen aldaketak eta Ikaskuntzaren **Diseinu Unibertsalak** (DUA) ezartzen dituen oinarriak izango ditu jomugak.

Ikastaro honen bidez,

- **Programazio** batek izan behar dituen **puntuak** errepatatuko ditugu, zertan oinarritzen diren eta nola egokitzen diren ikasgelako errealitatera.
- **Programazioa DUAK** (Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala) ezartzen dituen ildoen arabera landuko dugu, eta ikasteko, adierazteko, komunikatzeko eta parte hartzeko erritmoei eta moduei erantzuneko programazio inklusibora hurbilduko gara.
- Hainbat **plan, proiektu** eta **protokolo** ikusiko ditugu: helburuak, noiz eta nola erabili, eta jardueren eta ekintzen adibideak.
- **Ebaluazio inklusiboan** murgilduko gara, tresnak partekatuz, IKTen bidezko ebaluazioa eginez, guztiontzako ebaluazioa eginez...
- Ikastaroa amaitzeko, **aurkibide bat** egingo dugu **programazioaren ideia nagusiekin**.

Helburuak

- **Plan, proiektu** eta **protokolo**ei buruzko informazioa irakurtzea, biltzea eta antolatzea
- **Ikasgelaren** barruan egon daitezkeen **beharrak behatzen** eta **hautematen** ikastea, eta erantzun bat egituratzea ikasgelako programazioaren bidez, **DUAREN** (Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala) arabera.
- **Ebaluazio inklusiboaren** baliabideak eta tresnak antolatzea.
- Planteatzen den errealitateari erantzuneko dion **programazio-egitura** garatzea.

Programa

2025-03-12 / 2025-04-09

“Nola egin programazio didaktiko praktikoa lehen hezkuntzan eta haur-hezkuntzan: planak, proiektuak eta protokoloak / Cómo realizar una programación didáctica práctica en primaria e infantil: planes, proyectos y protocolos”

1- SAIOA: ESTRATEGIAK ETA PROGRAMAZIO DIDAKTIKO BATEN ANTOLAKETA LOMLOE-REKIN

Modulu honetan ikusiko dugu zein diren **LOMLOE** programazioan egiten dituen aldaketak eta zein diren **DU**aren (Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala) oinarriak. Gure programazioetan kontuan hartzeko "**funtszko kontzeptuak**" elkartzeko eta aberasteko espazio bat sortuko dugu.

2. SAIOA: PROGRAMAREN GORPUTZA: aniztasuna, metodologiak, espazio-baliabideen antolamendua, materialak, curriculumak...

Modulu honetan, programazio didaktikoaren **gorputzaren egitura** zein den ikusiko dugu. **Metodologia inklusiboak** eta **baliabideak** ikusiko ditugu, eta eskura ditugun adibide praktikoen bilduma sortuko dugu guztion artean.

3. SAIOA: PLANAK, PROIEKTUAK ETA PROTOKOLOAK

Modulu honetan, programazioari forma ematen lagunduko diguten **planak, proiektuak eta protokoloak** ezagutuko ditugu, eta ikastetxearen eta komunitatearen beraren parte egin ahal izango dugu. Zeregin gisa, taula txikiak sortuko ditugu informazioa antolatzeko eta plan, proiektu eta protokolo horiek gauzatzeko adibideak, jarduerak eta ekintzak jasotzeko.

4. SAIOA: EBALUAZIO INKLUSIBOA: tresnak, adibideak, IKTak, egokitzapenak...

Modulu honetan **ebaluazio inklusibo**ari buruz hausnartuko dugu, programazioari zentzua ematen dion oso gai garrantzitsua baita. Ikusiko dugu ebaluazioaren helburua ikasitakoari buruz hausnartzea izan behar dela, eta ez ikasitakoa zenbakiekin baloratzea. Ikasgelako beharren eta errealitatearen arabera **ebaluazio motei** buruz ikasiko dugu, eta foroaren bidez praktika aberastuko dugu.

5. SAIOA: AZKEN LANA: programazio didaktikoaren egitura eta antolamendua

Azken modulu honen bidez, ikasitakoa praktikan jarriko dugu, eta gure **ikasgelako programazioak** hartuko dituen ideia nagusien aurkibidea antolatuko dugu.

EMALEAK:

NAROA GARCIA ROMAN
MONIKA URIARTE PORTELL

Zuzendaritza



Naroa García Román

-

"ENSÉÑAME Y LO RECUERDO, INVOLÚCRAME Y LO APRENDO" B.FRANKLIN. ***PROFILA*** - LH, musika, heziketa berezia, HH eta hezkuntza OPEko irakaslea. - Eskola inklusiboa sortzeko jarrera - Proiektu berriak martxan jartzeko gaitasuna - Funtzionarioa. OPE ***IKASKETAK*** -2015: Euskal Herriko Unibertsitatea EHU LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA (MUSIKA) -2016: Universidad Pontificia de Salamanca UPSA HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA -2016: Deustoko Unibertsitatea UD HEZKUNTZAN PREMIA BEREZIAK MASTERRA -2017: Universidad a Distancia de la Rioja UNIR PEDAGOGIA TERAPAUTIKOA MENTZIOA - 2019: OPOSAKETAK ***LAN ESPERIENTZIA*** -2016-17/ 2018-19; HAUR HEZKUNTZAKO TUTOREA : 3 URTEKO GELA -2017-18/2019-20/2020-21/2021-22: PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA: LH eta HH -2020-21: IKASKETA BURUA (HH eta LH) -2020-21: OPOSAKETEN FORMATZAILEA ***IKERKUNTZA LANAK*** -"Análisis y observación del proceso de lectoescritura en distintas metodologías y propuesta de mejora" -"Diseño de guiones sociales para el alumnado de primaria con síndrome de Asperger o trastorno del espectro autista (TEA) de alto funcionamiento" ***HIZKUNTZAK*** EUSKARA C1 INGELESA B2 FORMAKUNTZAN ***BESTELAKOAK*** - TALDE LANA ETA ENPATIA - SORMENA - TEKNOLOGIAN GAITASUNA - METODOLOGIA BERRIEKIKO INTERESA



MONIKA URIARTE PORTELL

UIK

PROFILA: -Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza irakaslea. Hezkuntza EPEko irakaslea. -Funtzionarioa 2023ko EPetik. -Arduratsua. Talde lanean aritzeko prestutasuna, sortzaile eta ekintzailea. IKASKETAK: -2016 Haur Hezkuntzako Gradua (EHUn) -2020 Lehen Hezkuntzako Gradua (Nebrija) -2021 Hizkuntza eta Mintzaira mentzioa (Nebrija) -Momentuan Psikomotrizitate praktikan formakuntza (Luzaro Psikomotrizitate eskolan) ***LAN ESPERIENTZIA*** -2020-2025 Haur Hezkuntzako tutore -2024/2025 EPE prestatzaile HIZKUNTZAK: Euskara C1 English B2

Irakasleak



NAROA GARCIA ROMAN



MONIKA URIARTE PORTELL

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2025-03-14 ARTE
Orokorra	110,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	94,00 EUR
Matrikula exentzia	77,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	94,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	94,00 EUR